



2010EKO MAIATZAREN 27KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamarreko maiatzaren hogeita zazpian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Barandiaran Aldasoro, Iñaki Saldaña Herrero eta Javier Moreno González de Lara.

Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, Inazio Estensoro Eskisabel zinegotziak ez dira bertaratu.

Aktan adieraziko da Juan Manuel Serna Portugal, Ángel Hernández Marzal eta Ricardo Crespo Rubio zinegotziak bertaratzen direneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2010eko apirilaren 22an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

Une honetan Juan Manuel Serna Portugal, Angel Hernandez Marzal eta Ricardo Crespo Rubio zinegotziak bertaratu dira.

III.- 1 H.J.A.KO (C.A.F.) HIRI ORDENAMENDUKO PLAN BEREZIAREN BEHIN BETIKO ONARPENAREN AURKAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSOA.-

JUAN GASTESI IRIARTE Jn.k, 15.904.950-J N.A.N.dunak, CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES S.A.ren izenean jardunez, 2010eko martxoaren 10ean eta 2010eko maiatzaren 26an BIRJARPEN ERREKURTSOAK aurkeztu ditu, 1H.J.A.ko "CAF" Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren behin-betiko onarpenaren eta aipatu H.A.P.B.ren Testu Bateratuaren onarpen akordioen aurka.



Sakoneko gaietarako dagokionean, bigarren errekurtsioa lehenengoaren erreprodukzioa denez, biak batera aztertu eta ebazten dira. Laburbilduz, aipatutako gaiak ondorengoak dira:

1. f.10.1.4 izeneko partzela Udalaren jabari publikora ez gehitzea eskatzen da, jardueraren garapenerako beharrezkoa delako eta Plan Bereziaren ezarritako espazio libreen zehazkiak gehiegizkoak kontsideratzen direlako.
2. Ondorengo argitzea eta horrela adieraztea eskatzen da: f.10.1.3 partzelatik bizikletari eta oinezkoentzako bide zatiaren aurreikuspenak, Foru Aldundiaren egungo errepidearen alboan aurreikusitakoa ordezkatzeko duela; eta Aagauntza ibaiaren ondoan bidegorriaren eta pasealekuaren urbanizazioa burutzearekin batera, Foru Aldundiaren errepidearen lekualdaketa ahalbidetuko duten Arau Subsidiarioen eta gainontzeko dokumentuen aldaketaren izapidaketa hasi dadila.
3. Dokumentuaren legezkotasuna eta bideragarritasun ekonomikoa zalantzan jartzen dira, Euskal Ur Agentziaren kontrako txostena bait dago, gunean urak gaina hartu dezakeen zati bat dagoela kontsideratzen delako, 100 urterako erretornu epearekin.
4. e.40.1.1 partzelaren muga ez aldatzea eskatzen da, eta hala nola, lur-berdinketa lineatik 8 metroko zabalera duen zati bat trenbide-zortasun publikoan ez barneratzea, ADIF-ek ez bait du mugaketa hau eskatu, eta gainera, CAF-ek lursail horiek okupatu izan bait ditu ADIF-en ezagutzapean eta bere baimenarekin.

Aipatu errekurtsioen inguruan egindako txosten tekniko eta juridikotik zera ondorioztatzen da:

I.-

Plan Bereziak aurreikusten dituen zehazki azalerei dagokienean, esan behar da, presazko neurrien 105/2008 Dekretuko 17.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, bertan jasotzen diren aurreikuspenak gutxienekoak direla.

Bestalde, Plan Bereziak dotazio lokaletarako aurreikusten dituen azalerek, neurri batean behintzat, atal honetan emandako aurretiko inplantazioen gabeziak zuzendu nahi dituzte. Aurrekoari erantsi behar zaio, aipatu dotazio lokalen kokapena, behintzat gehiengo batean, errekararen babeserako bandan kokatzen dela, bere antolatze zuzena indartuz.

Aipatu guneetan kokatutako enpresaren gaur egungo instalakuntzei dagokienean, berriro ere Udalaren borondatea azaltzen da, behin-behineko irtenbide bat artikulatuz, CAF-ek lurzoru horiek erabiltzea ahalbidetzeko.

Azaldutakoaren ondorioz, errekurtsioa alegato hau ezestea proposatzen da.

II.-

Bizikletari eta oinezkoentzako bide-trazaketaren aukera bikoitzaren inguruan, Udal honen borondatea bizikletari eta oinezkoentzako zirkuitu bakarra burutzea da; ondorioz, azkenean Aagauntza errekararen ondoko bizikletari eta oinezkoentzako trazaketa burutzen bada,



Foru Aldundiarena den errepidearen alboko azalerak, landare-tratamentua hartuko du, izaera "bigunekoa".

Atal honetan errekurtsioak zati batean onartzea proposatzen da, behin-betiko dokumentuan honela jasoz.

Gunean AASS-en aldaketari hasiera emateko eskaerari dagokionean, Foru Aldundiaren errepidea lekualdatzeko, ulertzen da, egungo afekzioen ondorioz, aipatu prozesuari hasiera emateko enpresa errekurtsio egilearen eta Udalaren arteko adostasuna behar dela, gaurko egunera arte lortu ez dena; honek, antolaketa orokorra aldatzeko dokumentuaren izapidatzea atzeratzea gomendatzen du.

III.-

Afekzio hidraulikoei dagokienean, azpimarratu behar da, hauen konponbidea Plan Bereziak antolatzen duen gunetik eta Lazkaoko udalerritik kanpo kokatzen dela. Ondorioz, gomendagarria kontsideratzen da, aipatu arazoak ukitutako eraikuntzaren gauzatzea, irtenbide hidraulikoa artikulatu arte atzeratzea, aurreikuspen hau ondorengo dokumentu berdinbanatzailean kontutan hartu beharko delarik. Planeamendu xehatuko dokumentuak antolatzen dituen gainontzeko jarduketak, ez daude aipatutako gaiaren eraginpean, eta garatu daitezke eta garatu egin behar dira.

Ondorioz, aipamen hau ere ezestu egin behar da.

IV.-

Azkenik, e.10.1.1. partzela berriz dimentsionatzeari buruz, trenbide erabilerarako sailkatutakoa, esan behar da, Urbanizatzeako Jarduketa Programaren izapidaketan ADIF-ek alegazioa aurkeztu duela, lurzoru horien trenbiderako herri jabari izaera erreklamatu, eta hala nola trenbiderako zerbitzu publikotik ez desfektatzea eskatuz, arrazoi honek ere alegatoa ezestea behartzen duelarik.

H.A.P.B.a idatzitako teknikoek dokumentu osagarria idatzi dute, aipatutako terminoetan onartutako errekurtsioetatik ondorioztatutako egokitzapenak jasotzen dituenak.

Azaldutakoaren aurrean, Udal Osoko Bilkurak, Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Batzorde Informatzailearen proposamenez, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

LEHENA.- C.A.F. S.A.k, 1H.J.A.ko "CAF" H.A.P.B.ren behin-betiko onarpen akordioaren eta aipatu Planaren Testu Bateratuaren onarpen akordioaren aurka tartejarritako Birjarpen Errekurtsioak zati batean onartzea, aurreko ataletan azaldutako terminoetan eta gainontzekoan ezestea.

BIGARRENA.- 1H.J.A.KO "CAF" Hiri Antolaketa Plan Bereziaren dokumentu osagarria onartzea, aurreko puntuan aipatutako onarpenetik ondorioztatutako aldaketak jasotzen dituenak.



IV.- IGOGAILUEKIN HERRI BIDEA OKUPATZEARI BURUZKO ORDENANTZA.-

Biztanlegoak gero eta gehiago ikusten du bere etxean igogailua izatearen beharra eta etxe askotan barrukaldetik horretarako lekurik ez izatean igogailua etxearen kanpo aldetik jartzea planteatzen da.

Lazkaoko Udal Planeamenduko Arau Subsdiarioetan lehendik dauden eraikinetan kanpokaldetik igogailua jartzearen aukera aurrakusten da.

Hori horrela, udal zerbitzu teknikoek lehendik dauden etxeetan igogailua kanpokaldetik jartzea arautzen duen ordenantza prestatu dute eta Hirigintza Obra eta Zerbitzuen Batzorde Informatzailearen proposamenez ordenantza udal osoko bilkura honetara aurkezten da bere onarpenerako.

Udal Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Lehendik dauden eraikinetako kanpo faretetan igogailuak jartzea arautzen duen ordenantza, bere espedientean aurkitzen dena, hasierako izaeraz onartzea.
- 2.- Hasierako onarpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragartzea, espedientea jendaurrean 30 egunetako denboraldian jarritz.
- 3.- Jendaurrean dagoen denboraldian inolako alegaziorik aurkeztuko ez balitz, hasierako onarpena behin betikoa bihurtuko litzateke espreski hartutako akordio berri baten beharrik gabe.

V.- GOIEKIKO 2009KO KONTUAK.-

Jarraian GOIEKI, S.A.ren 2009ko kontuak aurkezten dira Osoko Bilkurara bere onarpenerako.

Alkateak esaten du kontu hauek GOIEKI, S.A.ko Administrazio Kontseiluan onartuta daudela eta Udaletako onarpenekin hurrengo Batzar Orokorrera eramango direla honek bere onarpena eman dezaion eta batzar horretan bera izango litzakela Lazkaoko Udalaren izenean, Osoko Bilkura honek erabakitakoarekin bat, botua emango lukeena.

Osoko Bilkurak, GOIEKiko 2009ko kontuan aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, kontu hauek onartzea erabakitzen du.

VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Serna zinegotziak esaten du berak ondo jaso duela eguneko gai zerrenda baina bere lagunek berandu jaso dutela eta hau ez duela borrokarako gai gisa erabili nahi baina etorkizunean gerta ez dadin neurriak har daitezzen nahiko lukeela.

Alkateak erantzuten dio gertatutakoa hainbat zirkunstantziaren ondorioz izan dela, alde batetik greba eguna egon dela eta bestetik korreo elektronikoa ere egun batzuetan ondatuta egon dela.



Jendartetik hitza eskatu eta alkateak horretarako baimena eman ondoren Angel Eztalak esaten du batzordeetara oso jende gutxi joaten dela eta jakin nahiko luketela zein neurri hartu behar diren. Gehitzen du zinegotziei kalteordainak ere ordaintzen zaizkiela bileretara joate horren truke eta zer egin asmo dagoen jakin nahiko lukeela.

Alkateak esaten du une honetan erantzuteko moduan ez dagoela baina galdera jasota gelditzen dela.

Saldaña zinegotziak (Alternatiba) esaten du, aurreko puntuaren gaiaren inguruan, GOIEKIko informazioa jasotzea nahiko luketela.

Alkateak erantzuten dio bere eskaria GOIEKIra bideratuko duela baina bestalde berak ere (Saldañak) zuzenean GOIEKIri eskaria luzatzea egokia litzakela.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta laurden direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

